

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Irene Yeregi Salegi

*Zumaia,
Gipuzkoa
(1924-2016)*

Aurkibidea



Biografia



San Pedro kalean jaio zen; geroago, Goiko Plazan eman zituen hainbat urte; azken urteotan, Yeregitarrek Julio Beobide ibilbidean egin zuten etxean bizi da (1957 inguruan eraiki zuen etxea bere familiak). Aita Usurbilgoa zuen, Jesus Yeregi, eta ama Oikiakoa. Hizkeran nabaritu egiten zaio pixka bat. Aita oso ezaguna izan zen, abertzalea eta gerra aurrean Zumaiako Batzokian lan asko egindakoa. "Yeregi Hermanos" motor-fabrika ere sortu zuen 1920 inguruan. Irenek ere bertan egin zuen lan gazte zela. Gai horietaz eta Zumaiako historiaz oro har hainbat kontu aipatu zituen elkarrizketan.

Zintak

ZUM-022

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-01-30
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZUM-023

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-01-30
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

ZUM-089

- **Proiektua:** Zumaiako hitanoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier
- **Data:**
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Azkue Ibarbia, Xabier

Pasarteak

1. "Yeregi hermanos" motorrak egiteko fabrika

- **Erref:** ZUM-022/002
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita lehenbizi txofer lanetara etorri zen Zumaiara. Anaia zaharrenak motorrak egiteko fabrika zuen, eta hara etorri ziren lanera lehenbizi, baina anaia nagusiarengandik banandu eta "Yeregi hermanos" motorrak egiteko fabrika jarri zuten beste anaien artean. Bera jaiotzerako jarria zuten fabrika.

Transkripzioa

- Eta aita nola etorri zan honea, Zumaiara? - Ba, Zumaira etorri zan, este, Conde de Placencianian txoferra, txofer. Baiño geo jarri zuen taillerra. Geo etorri zian beste anaiak honea ta jarri zuen. Etorri zian lehenbizi lanea, zea, este, zea batek, anai zaharrenak zeukan hamen taillerra, gasolineruak. Gasolin-motorra, bai, motorra. - Gasolina… motorrak iten? - Bai. Eta horrea etorri zian lanea, Zumaira etorri zianian. Baiño agindutako zeak ez zixkoen zeatu, eman, anai horrek, eta in zuen beste danak apartatu in zian. Ba, zian bost anai izango zian. Apartatu zian ta gure aita zan tartian. - Eta orduan jarri zuen Yeregikua. - Jarri zuen "Yeregi Hermanos". - Eta ze iten zuen? - Motorrak. - Motorrak. - Bai. Bai, sí. - Eta ya gerra aurrian hasi zian motorrak iten? - Bai! Ba, hasi zian, ba, en el… Oseake, nere ahizpak zenbat eukiko zitun? Usten det jaioberridxa o urtebete. Oseake, ni jaidxotako ya jarrita zeon. - Jarrita zeon. - Bai. Ni hirugarrena naix. - Mil novecientos veinte inguruan… - Bai, bai, bai. Dieciseis o dieciocho eo. Bai. Ni jaio ta… Oseake, ni hirugarrena naiz. - Eta ordurako ya motorrak eta iten zian, e, Zumaian? - Orduan gasolinakuak iten zituen. Geo hasi zian diesela beaiek. Baiño gure aita, esto, zeak, gasolinakuak iten zituenian, hil zan. Oseake, zeakin, berrogeita bi urtekin o hil zan. - Gazte. - Bai. Gaztia. Eta beatzi umekin geatu zan gure ama. Pentsa zazu nola geatu zan!

2. Aita tifusarekin gaixotuta

- **Erref:** ZUM-022/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Aita tifusarekin hil zitzaion. Marinel batek bi ostra ekarri eta aitak gordinik jan

zituen. Itxuraz, txarrak zeuden eta tifusa harrapatu zuen. Orduko gaixotasunak.

Transkripzioa

- Eta hoixen, ba, gaitzan zea, esto, tifusekin hil zan.
- Bai, e?
- Bai! Ostra bat, maiñel batek ekarri zion etorri zanian. Bi ostra eman omen zixkon, gure amak kontatzen zun. Bi ostra eman eta bat beak gordiñik jan, eta bestia, zeak, amak txapan erre eta seme zaharrenak, nere anaia zaharraua zan, ni hirugarrena, zaharrenak, harei eman jateko ta hark ezer ez. Ta aittak zea harrapatu.
- Tifusa harrapatu.
- Tifusa harrapatu. Nunbait txarra zeon, ta... tifusa harrapatu zun. Ta geo...
- Orduan tifusa ta holakuak asko izaten zian?
- Bai.
- Tuberkulosisa ta...
- Tuberkulosisa'e bai, bai.
- Ta gaiñea, orduan, uaiñ ez, baiña...
- Oaiñ ez, baiño orduan bai. Eta ze, ba, gure aita hil zan, oseake, San Pedro egunian o zan hori, ostrena. Eta este, agostuen hamabostian hil zan. Bai. Baiño ez zan hil zeatik horretik, e! Hil zan, bueno, ya hori bazekan, baiño, "con una congestión pulmonar" hil zan, kongestidxo batekin. Espezialistak eta ekarri giñuzen orduan, baiño alperrik zan, ya orduan ez zeolako... oaiñ bai.
- [...] adelantoik eta.
- Bai.

3. Zumaiako motor eta kaldera fabrikak

- **Erref:** ZUM-022/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak

Laburpena:

<p>Aitaren tailerrean, Yeregi hermanosen, motorrak egiten zituzten. Motorrak egiten zituen beste tailer bat ere bazegoen, eta Carmelo Unanue lantegian motorrak eta kalderak egiten ziren. Balentziaganeakoan ere kalderak egiten ziren, baina hura lantegi zaharragoa zen.</p>

Transkripzioa

- Eta esan diazu orduan motorrak eta iten zituela Yeregi Hermanosen.
- Bai, "Yeregi Hermanos".
- Eta Zumaian, e, motorrak eta, tradiziyua dago, ez? Motorrak eta...
- Bai, motorrak bai. Geo [Beale] bazan, geo [Bealek]'e iten zun beste, zea, bi, bi hoietxek zeбен. Ta geo, Karmelo Unanue, hark iten zitun kalderak eta geo motorrak. Estreiñeko kalderakin ta hasi zan, baiño geo motorrak. Eta Balentziagian kalderakin. Balentziaganeakua aspaldikua da, hura lehenokua, porke han kalderak iten zitun.
- Yeregi baiño lehenokua.

- Yeregi baiño lehenokua. Ta geo, geo hasi zian hoiek, Balenziaganequak hasi zian zea iten, kaskuak iten. Ta uain hor segitzen due uaindikan hoidxek. Beste, Karmelo're zea, deseindu zan, ta guria're deseindu zan eta Beale deseindu zan.

- Eta...

- Baiño gurian Galizirako ta motor asko iten zian, e! Bueno!

- Eta beti motorrak?

- Bai, beti. Beti motorra, beti motorra.

- Motor txikiak eta gero...

- Eta haundiyak, baiño ya haundiyak, e! Ya haundiya. Ya ez dakit zenbat kabalokuak iten zian ya, haundiyak.

- Zuk ezautuko zendun txiki-txikitatik...

- Bai, txikitatikan, bai.

- ...motor txikiyak, ez?

- Ta gaiñea gu hantxe ibiltzen giñan. Ta ni lanian'e hamalau urtekin hasi nitzan, e!

- Bertan?

- Bertan.

- A, bai, e?

- Bai.

4. 14 urterekin aitaren tailerrean lanean

- **Erref:** ZUM-022/005
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>14 urterekin bera ere aitaren lantegian hasi zen lanean, lehenbizi zerran eta gero fresadoran. Orduan emakume bakarra zegoen tailerrean lanean. Aita hil zenean ama ezer gabe geratu zen, orduan alarguntasunik ez zelako kobratzen eta tailerraren dibidendoetatik bizi zen. Seme-alaba guztiek lan egin behar izan zuten.</p>

Transkripzioa

- Ta ni lanian'e hamalau urtekin hasi nitzan, e!

- Bertan?

- Bertan.

- A, bai, e?

- Bai.

- Eta makinan [...] o?

- Ez. Bai, famili... Zerran.

- Zerran?

- Ta geo zea, fresadoran, geo.

- A, bai, e?

- Bai. Hamalau urtekin.

- Eta orduan normala zan emakumiak eta...

- Ez. Bai! Emakume bat zeon. Gerra ondorena zan ta emakume bat zeon.

- Ta tokatuko zitzaizun zuri gerra...

- Gizona kartzelan o ez dakit nun zekan emakume hark eta hark zeakin, nerekin iten zun.

- Baiña bestela...

- Ni neska koskorra!

- Karo. Zuri gerra justo hamalau urtekin...

- Bai, bai. Bai, ba. Bai, ba. Gure ama geatu zan ezer'e gabe. Oseake, geatu giñan... Taillerra zeon, baiño ez zan orduan seguridade sozialik eta ezer'e, eta ez zuen, geo zeaik ez zuen in. O hiltzen zanian o zea eman, o ez dakit ze, ez... Oseake, gure ama bizitzen zan "con los dividendos".

- Enpresana.

- Enpresena. Ta klaro, guk danok lanea jun giñan. Oseake, bai, nere ahizpak ere bai. Ta behekoa, behian dakat ahizpa bat, hura're pasa zan zeatik, eta bestia berriz, bestia're ofizinan eon zan, hirugarrena're.

5. Kanporako motorrak egiten zituzten lantegian

- **Erref:** ZUM-022/006
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Gerra garai inguruan gehienak batelak ziren, baina laster hasi ziren motordun ontziak ere. Kanporako egiten zituzten motorrak lantegian (Hondarribia, Lekeitio, Ondarroa). Gerra ondorengo urteetan ibili zen bera lantegian lanean eta garai hartan egon zen lan gehien. Makinan lan egiten zuen; osabari laguntzen zion fresadoran.

Transkripzioa

- Baiña orduan oraindik, gerra aurrian gehien bat, hamengo batelak eta gehienbat arraunian izango zian, ez? Edo...

- Bai. Bai. Ez, arraun... gehiena arraunian!

- Arraunian.

- Bai. Baiño geu motorrakin ya, e! Baiño hemen zea, ez zeon hola zeikan, motor txikidaxak eta zebe. Hamen ze, bat o bi, ez zan holako zea hamengua. Getaidxan, Getaidxan, Getaidxan zian zea asko. Ta Oridxon'e bai. Eta geo zea're bai, ene!, zea, Galiziraiño.

- Orduan, gehienbat kanporako.

- Bai, kanporako: Bermeo, e, zea, esto, Mutriko, Ondarroa, Lekeitio. Danian. Bai, Pasaira, bai, Pasaian'e bazian, baiño gutxiyo. Ta Hondarrubidxan'e bai, bazian, bai, motor asko zian.

- Eta...

- Horren istoridaxak ere badabe, zeon, osea, nere anaiak eta badazke.

- Eta hor, e, sasoirik onena, garairik onena zein izan zan, holan, gehien, lan gehien izan zana?

- Ba, orduantxen, bai, ba, sasoi hori.

- "Cuarenta y pocos" edo "cuarenta y tantos"?

- Cincuenta... Bai, ni lanian ibili nitzanian ta lan asko zeon! Ta haren ondoren'e zeon'e bai. Geo bajatu zan, geo berriro hasi zian zea're bai, motorrak iten ta. Gurian osaba're ez dakit ze zea zan, ez dakit. Ez zan bate aurea zeatzekua. Ta zeatu in zan, bajatu in zan. Geo illobak eta're danak

erten in zuen, porke famili haundidxa giñan. Gu're bai, ta guriak'e Ondarrura jun zian lanea, porke ez zidxo en paatzen ondo taillerrian. Eta Ondarrura jun zian ta beaiek been kaxa jarri zuen. Eta beste lehengusu batzuek ere taillerra jarri zuen. Haidxek ere lo mismo pasa zitzadxo en eta... Ez zan bate, zea, osaba, ez zan bate enprendedora. Bea bai, hola, bea, baiña ez zan...

- Eta noiz arte izan zan, noiz arte jardun zenuen lanian?

- Ni lanian, ba...

- [...] eta enpresa.

- Enpresak, izango dia, hogeita hamar urte izango dia itxi zala.

- Hirurogeta hamapikuan, edo...

- Bai. Itxi zala, bai, hiruro..., bai, hortxe, hortxe-hortxe ibiliko da, hogeita hamar urte, o, ibiliko da, bai. Ta ni ibili nitzan hemeretzi urte arten. Hemeretzi...

- Gerra ondorengo urtietan, orduan.

- Bai, gerra ondoreneko urtietan. Eske guri hamalau urtekin obligatu in zigun jutea, lanea. Oseake, sozidxo giñan nonbait ta ez dakit nik, bueno, hori beaien zea zan, nik ez dakit ze nola ze zea, baiño gure etxian danok jun behar izan giñun.

- Eta zu makiñara, orduan?

- Ni makinan. Ta gaiña bi tokitan igual ibiltzen nitzan, zerran, oseake, zeoze haundi samarra bazan ebakitzeko, martxan laga eta fresadora aldamenian zeon, ta fresadoran. Bai.

- Eta ikasi, nola ikasi zenun?

- Ba, haraxe jun ta ikasi! Ibilidxan, ibilidxan. Ta geo osaba bat gendukan. Hark ere fresadora haundidxa zekan barrukuak itekua eta pistoiak eta edo zeak, esto, kulatak eta, ez, ez... Pistoiak nola sartzen dia? Ez dakit, beste zea hori zer dan!

- Zigueñala edo...

- Ez, zigueñala ez. Zigueñala da behekoa, ibiltzen dana. Oseake, zean ba, bielak ibiltzen ditzuna. Oseake han, fresadoran, ta harei laguntzen ibiltzen nitxan, osabai, bai. Pixu haundiya zekaen piezak ibiltzen zitun osabak eta... Bai, hantxen! Hemeretzi urte arten!

6. Motorrak egiten zituzten lantegian

- **Erref:** ZUM-022/007
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:11:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak

Laburpena:

<p>Motorrak osorik egiten zituzten lantegian eta fundizioko lanak ere bertan egiten ziren. Ziurrenik piezaren batzuk ekarriko zituzten kanpotik, baina gehiena bertan egiten zen. Lantegia Kantauri plazan zegoen. Bertan zeuden beste lantegi batzuen inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Eta motorrak? Oso osorik iten zian bertan?
- Bai, han osoikan. Montatu o piezak iñ'e bai?
- Eta fundiziyuan iten zian, baita. Baiño baten batzuk igual ekarri ingo

zituen. Bai, zeak ekarri ingo zituen, hor ez zian iten dan-danak. Zer dia hoidx ek? Zea batzuek badia, ba, hola, elektrikua o zea, bai, danak ez. Oseake, iten zan "lo más bulto".

- Bai.
- Balbulak eta, gauza hoiek danak iten zian.
- Bertan in ta han montatu.
- Bai, montatu, bai.
- Eta normalian...
- Baiño geo tokin batzuetan eukiko zituen noneonon iten zixkoenak gauza, pieza batzuek. Beaidxek, errazo da beti're etorri ta, baiño...
- Eta nun zeon?
- Hori?
- Yeregi Hermanos?
- Oain nola zea, Kantauri... ezautzen dezu Kantauri plaza? Ezautzen dezu? Ba, horixen.
- Hori zan, bertan?
- Hori zan, ba, ta barkuak hemen erridxuan eoten zian. Bueno, bakizu, hor aurrian, Kanta..., itxe hoiien aurrian!
- Eta...
- Ta geo bestia zan, beste fabrika aldamenian [...] zan. Hark zeak iten zitun, makinak. Hola, fresadorak eta tornuak eta makinak iten zitun hark.
- Bertan, plazan.
- Aldamen... Bai, bai, plaza horretan. Oseake, hoiek danak dia.

7. Zumaiaiko ontzigintza

- **Erref:** ZUM-022/009
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:13:55. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Astileroak non zeuden Zumaian. Itsasontzien kaskoak hutsik ekartzen ziren eta gero montatu eta motorra jartzen zitzairen. Arotzak ere ibiltzen ziren euren lana egiten. Zumaian lehen itsasontzi ugari egiten ziren. Moila itsasontzi kaskoz beteta egoten zen. Ingurua nolakoa zen.

8. San Pedro kalean jaioa; Goiko plazako dendak

- **Erref:** ZUM-022/010
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:16:35. **Bukatu:** 00:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

San Pedro kalean jaio zen bera; ze etxetan jaio zen azaltzen du. 5 anai-arreba jaio ziren bertan eta gero Goiko plazara joan ziren, udaletxe ondora. Orduan jendea alkilerrean bizi zen, etxeak ez ziren erosten. San Pedro kalea ez da

asko aldatu. Beobide eskultorea ere San Pedro kalean bizi zen. Goiko plazako dendak.

9. Goiko plazako eskolak: pribatua eta publikoa

- **Erref:** ZUM-022/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Goiko plazako "kolegioa" handia zen. Neska eta mutil ibiltzen ziren bertan. Internak ere egoten ziren eskolan; nolako uniformea erabiltzen zuten. Inguruan zegoen beste eskola baten solairu batean ordaindutakoak eta besteak dohainekoak ibiltzen ziren. Ze bereizgarri izaten zuten janzkeran. Pantxika Etxezarretak terrenoak utzi zizkien mojei, baldintza batzuk jarrita.</p>

10. "Kintuxeneko" eskola

- **Erref:** ZUM-022/012
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Goiko plazatik parrokia aldera etxe baten lehenengo solairuan ume txikien eskola zegoen; "Tintuxenekoa" esaten zioten. Senar-emazte batzuk behean janari-denda zuten eta goian emakumeak ume txikiak zaintzen zituen.</p>

11. Goizean oinarrizko gauzak eta arratsaldean josten ikastera

- **Erref:** ZUM-022/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:24:45. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Lehenbizi "Kintuxenean" eta gero mojetan ibili zen eskolan. Lau urterekin hasi zen eskolan, baina ez zitzaion gustatzen. Goizean oinarrizko gauzak eta arratsaldetan josten ikasten zuten. Gerra aurretik Gipuzkoa izeneko liburu bat erabiltzen zen; inguruko herri txikiak agertzen ziren bertan.</p>

12. Irene izena nola jarri zioten

- **Erref:** ZUM-022/014
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Irene izenaren inguruko gorabeherak. Aita oso nazionalista zen. Berari Edurne izena jarri nahi izan zion, baina galarazita zegoen eta Irene jarri behar izan zion. Gerora laugarren alabari Edurne jarri zion izena.

13. Errepublikara garaiko bizipenak

- **Erref:** ZUM-022/015
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Errepublika garaiko kontuak. Berak zazpi urte zituela amak nazionalisten lazoa (ikurrinaren kolorekoa) jartzen zien berari eta ahizpari. Errepublikazaleen egoitzaren parean neskak banderekin kalejiran nola ateratzen ziren begira egon ziren. Errepublikanoak eta karlistak ere bazeuden, baina gehienak nazionalistak ziren orduan Zumaian.</p>

14. Batzokia, karlisten lokala eta errepublikazaleen lokala

- **Erref:** ZUM-022/016
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:31:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Batzokia non zegoen. Lokal handia zen eta antzerkiak egiten ziren bertan. Batzokia itxi zenean parrokiako zentroa egon zen bertan. Errepublikazaleek ere bazuten euren lokala; non zegoen azaltzen du. Zumaian ez zegoen sozialistarik. Karlisten lokala non zegoen. Karlistekin egoten ziren liskar gehien.

15. Aita nazionalista porrokatua

- **Erref:** ZUM-022/017
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:31:10. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Politika kontuetan tirabirak izaten ziren, batez ere karlistekin sortzen ziren liskarrak. Ahizpa eta biak karlisten lokalera antzerkia ikustera joan zireneko gertakizuna. Aita (Jesus Yeregi Manterola) batzokiaren sortzaileetako bat izan zen eta aurre-aurrean ibiltzen zen nazionalistekin.

16. Irratia errekisatu zieten

- **Erref:** ZUM-022/018
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:35:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Karlistak sartu zirenean irratia kendu zieten euren eta baita euren gainean bizi zen osabari ere. Euren etxe inguruko eraikin bat errekisatu zuten frankistek eta hara eraman zuten euren irratia. Batzokia egondako eraikina karlistek errekisatu zuten eta hara eraman zuten goiko irratia. Orain talasoterapia dagoen eraikina goitik behera errekisatu omen zuten.

17. Tropak Goiko plazan; kapitaina izebaren etxean

- **Erref:** ZUM-022/019
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaiko bizipenak. Soldaduak Goiko plazan egon ziren. Euren osabak baserri batera ihes egin zuen badaezpada, eta izebak kapitain bat izan zuen etxean. Irene kapitainarekin joaten zen kuartelera olio bila; izan ere, kapitainari baratxuri-zopa asko gustatu zitzaion, eta hura jartzeagatik. Tropek denbora gutxi egin zuten herrian, baina herriko karlistak eta falangista nafarrak geratu omen ziren herrian.

18. Bonbatatik babesteko Sesteroaneko sotora

- **Erref:** ZUM-022/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Sesteroaneko dendaren azpian, soto bat zegoen; eta, sirena jotzen zutenean, denak hara joaten ziren, bonbatatik babesteko. Moilan bota zituzten bonba batzuk. Karabineroen etxola tiroz beteta egon zen. Hala ere, ez zen hainbesterako izan.

19. Ortizeneko fabrikako nagusiak ihesi eta jendea fabrika errequisatzen

- **Erref:** ZUM-022/021
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:40:40. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Gerra denboran, Ortizeneko kontserba-fabrika bakailao asko omen zegoen lehortzen. Nagusiek aurrera joan behar izan zuten, nazionalistak ziren eta. Ateak irekita gelditzean, jendea bakailaoa hartzera joan zen. Bera ere bila joan zen; baina, bera joan orduko, errequisatu egin zuten, eta gabe geratu zen.

20. Nazionalisten buru ibiltzen ziren herritarrak

- **Erref:** ZUM-022/022
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Nazionalistekin aurrean ibiltzen ziren herritarrak: Zumaiako alkatea (Arrate), Ajuria medikua, Zelaia... Horiek, gerra denboran, baserrietan ezkutatu zituzten, ez fusilatzeke. Zelaiaren etxea goitik behera errequisatu zuten. Errepublikara garaian bere aita baserririk baserri ibiltzen zen kotxearekin boto bila. Herriko lehenengo kotxeak.

21. Batzokiko kultur-ekintzak

- **Erref:** ZUM-022/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:47:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Batzokian euskaraz irakasten hasi ziren. Bere ahizpa euskaraz ibili zen eta bera ere hala hasi zen, baina gerra etortzean akabo. Euskal dantzak ere irakasten ziren batzokian eta bera ere ibili zen dantzan. Sagar-dantza egiten zuten, esaterako.

22. Antzerkiak batzokian gerra aurretik eta luistarrek gerraostean

- **Erref:** ZUM-022/025
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:48:05. **Bukatu:** 00:50:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Batzokian antzerkiak ere egiten ziren. Berak zarzuela tipoko antzerki batean parte hartu zuen, baina ez zuen paper berezirik. Jende askok hartzen zuen parte eta harrera oso ona izan zuen. Euskaraz zen antzerkia. Antzerki honen inguruko azalpenak. Antzerkia gerora egin izan du zaharren etxean. Gerra ondorenean luistarrek ere egiten zituzten antzerkiak, baina gaztelaniaz.</p>

Transkripzioa

- Eta dantzekin eta batera, antzerkiya, ez?
- Ta geo antzerkidxak iten zituen, bai. Antzerkidxak, bai.
- Eta hor'e ibili ziñan zu, ez?
- Antzerkidxan ez, han ez. Ni ibili nitzan antzerkidxan, oain zea, oaintxe hamar-hamabi urte.
- A, geo?
- Geo antzerkidxan, zean, [...].
- Baiña lehenoz ez.
- Lehenoz ez, ez nitzan behiñ'e zeatu. Bai, bat in nun zean, baiño montoikua nitzan. Porke zan zarzuela bezela, o. Ez, "Soy la [...]" izena zun. Hura in zan... Jende asko dao, kanpotik etorri zan gaiñea, e! Oso hotel ederra zan! Amaia, nola hor, Amaia, lehenoko Amaia plazan? Hotel Amaia nola zan? Hor teatrua zeon, zinia zeon hor. Ba, horko teatruan, horko nausidxa, donostiar bat zan, nazionalista zan. Harei're rekisatu in zidxoan. Habek tranpa inda, ezin zien jarri habek itxia horrena, e!, hotelena, e! Eta hortxe in zan zea bat, teatro bat, "Soy la [...]". Oso, ni ez naiz asko akordatzen, baiño sorgin bat'e bazan lehidxuan ertetzen zuna eta geo arkumia're bazan. Eta gu behian geunden, egun batian behintzat behian gabela, arkumia urtan, uretan sartu zan, arkume txiki bat zan, klaro, arkume txiki batek erten zun. Baiño oso, izugarrizko exitua euki zun, ta behalaxen gerra etorri zan ta kito! Ya kito!
- Eta antzerki hori euskeraz zan?
- Bai! Euskeraz! Bai!
- Orduan bazeon afiziyua antzerki...
- Bai, bai, bai, bai. Antzerkidxa bai, asko. Ta geo, geo, oseake gerrako, bueno, zean, geo, zean, zentro, zea, Luisetakuak iten zituen zeak, antzerkidxak. Baiño haidxek ya izaten zian gizasemienak. Hura, hura zeatu zan, han iten zuen hoidxek, bueno, ya, nik'e orduan ya eukiko nitun ya hamazazpi urte o, hemezortzi igual. Zea, nola dao, nola jartzen ditue

pinturak eta hor behian? [Alondeidxa] esaten giñoun. Hor, hor goiko pixuan zeon teatro bat eta han iten zian Luisetakuak.

- Baiña ya hori gizasemiena.
- Ta hori ya gizasemiak iten zuen.
- Erderaz.
- E?
- Erderaz.
- Bai, erderaz.
- Gerra, gerra ondoren.
- Gerra ondoren, bai. Orduan ez zuen lagatzen euskeraz. Ez zuen lagatzen euskeraz hixketan.

23. Gerraostean Espainiako bandera edo falangistena jarri behar arropan

- **Erref:** ZUM-022/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:50:40. **Bukatu:** 00:52:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Gerraosteko giroa Zumaian. Arropan Espainiako bandera edo falangistena jarri behar izaten zen. Goiko plazara Cara al Sol abesten ikastera joan behar izaten ziren.</p>

24. Bereizketa ikasle arrunten eta internen artean

- **Erref:** ZUM-022/027
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:54:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Eskolan moja nazionalista bat zuten eta hark gerrako berri jakin nahi izaten zuen. Hura jatorra zen, baina mojak gogorrak izaten ziren normalean. Bereizketa handia zegoen ikasle arrunten eta internen artean. Inguruko jendea egoten zen interna. Haiek gehiago ordaintzen zuten.</p>

25. Bizikletak alkilatu egiten ziren

- **Erref:** ZUM-022/028
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:54:15. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Bizikletan nola ikasi zuen. Oso jende gutxik izaten zuen bizikleta orduan.

Bizikletak alokatu egiten ziren. Behin Ondarroaraino joan ziren bizikletan. Beraiek izan zuten lehenbiziko bizikletan Frantziatik ekarritakoa zen. Anai-arreba guztientzat bizikleta bakarra zuten. Bizikletak non alokatzen zituzten.</p>

26. Umetako jolasak: "Tres navios"-ka, mando-mandoka, asakaponetan...

- **Erref:** ZUM-022/029
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:56:25. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Gaztetako entretenimenduak bizikletaz ibiltzea edo geltokira trenak ikustera joatea izaten ziren. Geltokian egoten ziren alanbreekin euren izenak idatzi, eta trenbidean jartzen zituzten, trenak zapaldu zitzaizkien. Jostailu txiki batzuk egoten ziren, baina edozeinek ez zituen halakoak izaten. Botoiekin, txapekin eta halakoekin jolasten ziren. "Tres navios"-ka ere jolasten zuten; jolasaren inguruko azalpenak. Sokasaltoan. Mando-mandoka. Asakaponetan.

27. Goiko plazan jolasten zuten inguruko umeek

- **Erref:** ZUM-022/030
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:59:25. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Eskolako lagunak ibiltzen ziren elkarrekin normalean. Jolaserako, kaleko lagunak izaten ziren. Goiko plaza inguruko umeek (neska eta mutil) denek batera egiten zuten jolas normalean. Neskak gehiago ibiltzen ziren, mutilak tiragomarekin edo sagar-lapurretan ibiltzen ziren eta. Errekara bainatzera mutilak bakarrik joaten ziren. Karmengo Ama Birjinaren eguna pasa arte ez ziren hondartzara joaten, ordura arte ez zieten bainatzen uzten eta. Hondartzara beti Itzurunera joaten ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com